

2007ko lehenengo hiruhilekoan, %4,4 heriotza gehiago izan ziren, aurreko urteko aldi berean baino

Heriotzen kausa nagusia zirkulazio-aparatuko gaixotasunak izan ziren eta ondoren, tumoreak

2007ko lehenengo hiruhilekoan, Euskal AEn 5.141 lagun hil ziren, iazko aldi berean baino %4,4 gehiago, EUSTATen datuen arabera. Lurraldez lurralde, Araban 675 lagun hil ziren, %13,6 gehiago; Bizkaian 2.753, (%+0,7); eta Gipuzkoan 1.713, (%+7,3).

Normalean, urteko lehenengo hiruhilekoan izaten da heriotzarik gehien eta arnas aparatuko gaixotasunak izaten dira heriotza-kopuruan gehikuntza handiena izaten dutenak. Aurten, 2006ko hiruhileko beraren aldean %9,7ko hazkundera izan da, eta aurreko hiruhilekoaren aldean %41,5 gehiago.

Zirkulazio sistemaren gaixotasunen eraginez 1.556 lagun hil ziren; heriotza-kausa nagusia izan ziren eta heriotzen ia herena eragin zuten.

Bigarren heriotza-kausa tumoreak izan ziren eta 1.406 heriotza (%27,3) eragin zituzten. Hirugarren, arnas aparatuko gaixotasunak kokatu ziren, neguko hiletan 597 heriotza eragin baitzituzten.

Heriotzen kausak ez ziren berdinak izan sexu batean eta bestean: gizonezkoen artean, tumoreak hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak baino; emakumezkoen artean, berriz, heriotza-kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren, eta tumoreak bigarren. Arnas aparatuko gaixotasunak hirugarren heriotza-kausa dira, oraindik ere, sexu bietan.

2007ko lehenengo hiruhilekoan izandako heriotzen artean, 19 heriotza urtebetetik beheragoko haurrei egokitu zitzaizen: 8 mutikori eta 11 neskatori.

2007ko lehenengo hiruhilekoko hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen eta 283 biztanle galdu ziren. Herrialdeka, saldo negatiboak izan ziren Bizkaian eta Gipuzkoan, 291 eta 24 biztanle galdu baitzituzten, hurrenez hurren. Araban, oster, heriotzak gehiago izan ziren jaiotzak baino (+32).

1. taula: Euskal AEko heriotzak sexuka, heriotza-kausaren arabera. Hiruhilekoen alderaketa.

	2007ko		Aurreko hiruhilekoa		Aurreko urteko hiruh. bera	
	1. hiruhilekoa		(2006ko 4.hiruhilekoa)		(2006ko 1. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	5.141	100,0	4.584	100,0	4.924	100,0
Gizonezkoak	2.577	50,1	2.432	53,1	2.577	52,3
Emakumezkoak	2.564	49,9	2.152	46,9	2.347	47,7
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	5.141		4.584		4.924	
Tumoreak	1.406	27,3	1.416	30,9	1.369	27,8
Zirkulazio-aparatua	1.556	30,3	1.390	30,3	1.555	31,6
Arnas aparatua	597	11,6	422	9,2	544	11,0
Txegoste-sistema	255	5,0	241	5,3	244	5,0
Istripuak	164	3,2	158	3,4	152	3,1
Gainerako gaixotasunak	1.163	22,6	957	20,9	1.060	21,5
GIZONEZKOAK	2.577		2.432		2.577	
Tumoreak	877	34,0	886	36,4	896	34,8
Zirkulazio-aparatua	700	27,2	653	26,9	740	28,7
Arnas aparatua	313	12,1	249	10,2	308	12,0
Txegoste-sistema	149	5,8	132	5,4	146	5,7
Istripuak	107	4,2	114	4,7	109	4,2
Gainerako gaixotasunak	431	16,7	398	16,4	378	14,7
EMAKUMEZKOAK	2.564		2.152		2.347	
Tumoreak	529	20,6	530	24,6	473	20,2
Zirkulazio-aparatua	856	33,4	737	34,2	815	34,7
Arnas aparatua	284	11,1	173	8,0	236	10,1
Txegoste-sistema	106	4,1	109	5,1	98	4,2
Istripuak	57	2,2	44	2,0	43	1,8
Gainerako gaixotasunak	732	28,5	559	26,0	682	29,1

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es